

Lasarte-Orian 2026ko Martxoaren 8ko kartel lehiaketa zabalik

Lehiaketak 12 eta 17 urte bitarteko gazteak artearen bidez berdintasunarekiko konpromisoa adieraztera animatzen ditu

Lasarte-Oriako Udalak, Emakumearen Zentroaren bitartez eta Berdintasun Sailaren bultzadaz, **Emakumeen Nazioarteko Eguna** dela eta, **martxoaren 8an** ospatuko den kartel lehiaketaren edizio berri bat jarri du martxan. 12 eta 17 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago, eta sormena sustatzea, tokiko talentua ikusaraztea eta, batez ere, berdintasunaren eta aniztasunaren balioak txikitatik indartzea ditu helburu.

Aurten ere, udalerriko ikastetxeen laguntza izango du ekimenak. Izan ere, aktiboki parte hartu dute ikasleen artean lehiaketa zabaldu eta sustatzeko. "*Funtsezkoa da gelak berdintasunaren inguruan hausnartzeko eta adierazteko espazioak ere izatea. Horregatik eskertzen dugu irakasleen inplikazioa, gazteak parte hartzera motibatuzko zubi lana egiten baitute*", azpimarratu du **Lourdes Acevedo** Gizarte Zerbitzuetako, Garapenerako Lankidetzako eta Berdintasuneko zinegotziak.

Bestalde, **Maite Iglesias** Emakumearen Zentroko koordinatzaileak gogorarazi du proposamenak aurkezteko epea **otsailaren 2tik 26ra** izango dela zabalik, eta formatu digitalean zein fisikoan entregatu ahal izango direla. "*Teknika erabat librea da, baina kartel guztiek leloa izan beharko dute: 'Martxoak 8, Emakumeen Nazioarteko Eguna'*", esan du.

Lanak **martxoaren 2tik 9ra** egongo dira ikusgai Emakumearen Zentroan, eta herritarrek ezagutu eta beren iritzia eman ahal izango dute bertan, bigarren eta hirugarren sariak emateko kontuan hartuko dena. Diseinuko langile tekniko eta profesionalak osatutako epaimahai batek aukeratuko du kartel irabazlea, Lasarte-Orian 2027ko Martxoaren 8ko irudi ofiziala izango dena.

Hiru sari banatuko dira:

- Lehen saria: **120 euro**
- Bigarren saria: **90 euro**
- Hirugarren saria: **60 euro**

Udalak Lasarte-Oriako gazteei dei egiten die lehiaketa honetan parte har dezaten: "Gazteak jardunaldi honetan parte aktibo senti daitezen nahi dugu, beren ikuspegia eta sormena eman dezaten. Lehiaketa hau bere arrastoa uzteko modu bat da, eskubideak, justizia eta denontzako aukerak aldarrikatzen dituen data batean", amaitu du **Lourdes Acevedok**.

Oinarri osoak Emakumearen Topagunean kontsulta daitezke edo posta bidez eskatu emakumezentroa@lasarte-oria.eus. Udalaren webgunean ere eskuragarri egongo dira: www.lasarte-oria.eus



Abierto el concurso de carteles del 8 de Marzo 2026 en Lasarte-Oria

El certamen anima a la juventud de entre 12 y 17 años a expresar su compromiso con la igualdad a través del arte

El Ayuntamiento de Lasarte-Oria, a través del Centro de la Mujer y con el impulso del Área de Igualdad, ha puesto en marcha una nueva edición del concurso de carteles con motivo del **Día Internacional de las Mujeres**, que se celebrará el próximo **8 de marzo**. Dirigido a jóvenes de entre 12 y 17 años, el certamen busca fomentar la creatividad, visibilizar el talento local y, sobre todo, reforzar los valores de igualdad y diversidad desde edades tempranas.

La iniciativa cuenta un año más con la colaboración de los centros educativos del municipio, que han mostrado una implicación activa en la difusión y promoción del concurso entre su alumnado. *"Es fundamental que las aulas también sean espacios de reflexión y expresión en torno a la igualdad. Por eso agradecemos la implicación del profesorado, que actúa como puente para motivar a los y las jóvenes a participar"*, ha subrayado la concejala de Servicios Sociales, Cooperación al Desarrollo e Igualdad, **Lourdes Acevedo**.

Por su parte, **Maite Iglesias**, Coordinadora del Centro de la Mujer, ha recordado que el plazo de presentación de propuestas estará abierto del **2 al 26 de febrero**, y que podrán entregarse tanto en formato digital como físico. *"La técnica es totalmente libre, pero todos los carteles deberán llevar el lema: 'Martxoak 8 de Marzo, Emakumeen Nazioarteko Eguna, Día Internacional de las Mujeres'"*, ha indicado.

Los trabajos serán expuestos del **2 al 9 de marzo** en el Centro de la Mujer, donde la ciudadanía podrá conocerlos y expresar su opinión, que se tendrá en cuenta para la concesión del segundo y tercer premio. Un jurado formado por personal técnico y profesionales del diseño elegirá el cartel ganador, que será la imagen oficial del 8 de Marzo de 2027 en Lasarte-Oria.

Se concederán tres premios:

- Primer premio: **120 euros**
- Segundo premio: **90 euros**
- Tercer premio: **60 euros**

Desde el Ayuntamiento se hace un llamamiento a la juventud de Lasarte-Oria para que participe en este concurso: *"Queremos que los y las jóvenes se sientan parte activa de esta jornada, que aporten su visión y su creatividad. Este concurso es una forma de dejar su huella en una fecha que reivindica derechos, justicia y oportunidades para todas"*, ha concluido **Lourdes Acevedo**.



Las bases completas pueden consultarse en el Centro de la Mujer o solicitarlas a través del correo emakumezentroa@lasarte-oria.eus. También estarán disponibles en la web municipal: www.lasarte-oria.eus